



ESPERIMENTUA: KONTSERBAGARRIEK ALDATZEN AL DUTE OGIAK LIZUNTZEKO BEHAR DUEN DENBORA?

Kontserbagarriak gai kimikoak dira, eta gauzei gehitzen zaizkie bakterioak eta lizuna ez hazteko eta ez usteltzeko. Dendan erosten diren elikagai gehienek izaten dituzte kontserbagarriak. Kontserbagarriek alde handia eragiten al dute gauzek irauteko denboran? Ikus dezagun!

SAIATU ASMATZEN: Zure ustez, ogiari kontserbagarriak gehituta, aldatu egingo al da lizuntzeko behar duen denbora?

ESPERIMENTUA EGITEAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Gogoratu aldatu behar duzun gauza bakarra ogia kontserbagarriduna edo kontserbagarririk gabea izatea dela. Gainerako gauza guztiak berdin mantendu behar dira!

- Erabili tamaina bereko ogi-zatiak, eta saiatu garai bertsuan egindakoak hartzen (freskotasun bera).
- Dendan erositako ogi gehienek izaten dituzte kontserbagarriak; irakurri etiketa, ziur jakiteko.
- Kontserbagarriak gabeko ogia egin nahi baduzu, ogi-errezeta erraz bat daukazu 102. orrialdean.
- Ume txikiak iristen ez diren leku batean utzi esperimentu hau.

DATUAK

- Nola gordeko duzu ogia? (Gakoa: Segurtasun-arrazoiengatik, itxi hermetikoki, lizunak kanpokoarekin kontakturik izan ez dezan.)
- Nola neurtuko duzu lizun-kantitatea?
- Zenbatean behin begiratuko duzu?

ZER IKASI DUZU ESPERIMENTU HONETATIK? ZER GERTATU DA? ZERGATIK USTE DUZU GERTATU DELA?

Bizitza errealean...

ZERGATIK USTE DUZU DITUZTELA KONTSERBAGARRIAK DENDAN EROSITAKO ELIKAGAI GEHIENEK?

ARGIZKAK (5 URTE) ETXEAN EGINDAKO OGI BATEN ZATI ERREKTANGULAR BAT SARTU ZUEN ZIPLOCK POLTSA BATEAN, ETA DENDAN EROSITAKO OGI KONTSERBAGARRIDUN BATEN ZATI ERREKTANGULAR BAT SARTU ZUEN BESTE ZIPLOCK POLTSA BATEAN. BI POLTSAK LEIHO BATEAN JARRI ZITUEN. HIRU EGUN GEROAGO, ETXEAN EGINDAKO OGIA LIZUNTZEN HASI ZEN, ETA, ZORTZI EGUN GEROAGO, LIZUNEZ BETEA ZUEN GAINAZAL OSOA. DENDAN EROSITAKO OGI KONTSERBAGARRIDUNAK EZ ZUEN LIZUNIK, BAINA GOGOR-GOGORRA ZEGOEN POLTSA ZULATUTAKOAN.



MAILA AURRERATUA: Zer beste galdera dituzu kontserbagarriei eta lizuntzeko abiadurari buruz? Diseinatu esperimentu bat galdera horri erantzuteko.